

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 139,1 milioi euro berreskuratu zituen iaz iruzur fiskalaren aurkako borrokaren bitartez, 2016an baino % 21,5 gehiago

Nafarroaren berezko eskuduntzen defentsan Zerga Agentziari egindako erreklamazioen ebazpenetatik lortutako 21 milioiak kontuan harturik, guztizko kopurua 160 milioi eurokoa da

Astelehena, 2018.eko martxoak 12

Nafarroako Zerga Ogasunak (NZO) [139.138.757 euro berreskuratu zituen guztira 2017an](#), urteko zerga-bilketa likidoaren % 5,19 – Estatuarekiko doikuntzak bazterrean utzirik–, iruzur fiskalaren aurkako borrokan gauzatutako neurrien bitartez. Halaxe jakinarazi du gaur goizean prentsaurrekoan foru Gobernuako erakunde autonomo honen zuzendari gerente Luis Esainek, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranbururekin batera.

Iruzur fiskalaren aurkako publizitate-kanpainaren karteletako bat.

Nabarmendu behar da kopuru hau 2016an berreskuratutakoa (iruzur fiskalaren aurkako borrokan 114.506.786 euro berreskuratu ziren urte horretan) baino % 21,5 handiagoa dela, eta portzentaje handiagoa duela guztizko zerga-bilketa likidoaren gainean, 2016an izandako % 4,68ko portzentajearen aldean.

Zehazkiago esanda, kontrol-jarduketek zuzeneko emaitzetan bildu dira Ikuskaritzako aktenak, Kudeaketako likidazioenak, Zerga-Bilketako premiamenduzko gainkargu eta berandutzako interesenak eta Administrazioaren errekerimenduaren ondorioz aurkeztutako aitorpenenak. Emaiza hauen zenbatekoa 107,4 milioi eurokoa izan zen 2017an, 12,6 milioi euroko gehikuntza absolutuarekin eta % 13,32koigoerarekin 2016ko jarduketek aldean.

Kontrol-jarduketek eragindako emaitzak epez kanpo aurkeztutako aitorpenei dagozkie, Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduketek behartuta, baina errekerimendu batean formalizatu gabe, hau da, zergadun berari edo ezaugarri berberak dituzten antzeko beste zergadun batzuei beste epealdi batzuetan egindako egiaztapenen ondorioz. Emaiza hauen

zenbatekoa 31,7 milioi eurokoa izan zen 2017an, 12 milioi euroko gehikuntza absolutuarekin eta % 60,99ko igoerarekin 2016ko jarduketaren aldean.

Zerga-iruzurraren aurkako borrokaren hiru arloak

Aldi berean, aipatutako kopuruak NZOak zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko bereizi dituen hiru ataletan banaka daitezke: kudeaketa, ikuskaritza eta zerga-bilketa.

Zerga desberdinen aitortzen ohiko berrikuspenaz arduratzen den **Kudeaketa** atala izan zen diru gehien berreskuratzea lortu zuena: 94.408.045 euro guztira, 44.051 likidazio berrikusirik. Honi gaineratzen badizkiogu eragindako diru-sarrerak (30,9 milioi 5.791 likidazioaren bitartez), guztizko kopurua 63,5 milioi eurokoa da. Zenbateko honen zatirik handiena BEZ aitortzen berrikusketaz berreskuratu da (18,6 milioi euro), baina horrekin batera, Energia Elektriakoaren Balioaren gaineko Zerga (14,0 milioi), zehapenak (7,4 milioi), errekerimenduak (5,7 milioi) eta PFEZ ere (5,6 milioi) nabarmen daitezke. Berreskuratutako gainerakoa garaiz kanpo aurkeztutako aitortzen gaineko gaitzarguetan (1,8 milioi), Sozietateen gaineko Zerga (1,3 millones) eta bestelako zergetan (9,3 milioi) bildu da.

Balizko iruzurrak ikertzeaz arduratzen den **Ikuskaritza** atalak 944 jarduketa egin ditu, eta hauen bitartez, 33.585.712 euro berreskuratu dira. Horren harira nabarmendu behar da zerga-kontrola hobetzeko beste jarduketa garrantzitsu batzuk egin direla; adibidez, tiket eta fakturen emisioari buruzko kontrol presentziala, zuzeneko kuotarik eragin ez arren jokabide irregularrak prebenitzen laguntzen duena.

Horrekin batera, sektore jakin batzuetan berariazko egiaztatze-jarduketak egin dira; esaterako, higiezin errentamenduetan, higiezin turistikoaren errentamendua barne, banakako zergadunei nahiz sektoreko operadoreei zuzendutako jarduketaren bitartez.

Azkenik, Ogasunarekiko zergak premiamenduz kobratzeaz arduratzen den **Zerga-Bilketa** atalaren bitartez, 59.330 jakinarazpen bidali dira guztira, 11.145.000 euroko guztizko sortzapenaz, premiamenduzko gaitzarguak eta berandutzako interesak barne hartuta. Atal honetan, lehendabiziko aldiz, bahitura presentzialak egin dira zorrak kitzazari behin eta berriz uko egin dioten negozioetan. Zehazkiago esanda, era horretako 11 jarduketa egin dira, 70.000 eurotik gorako berehalako kobrantza eraginez. Kasu honetan, aspaldiko zorrak kitarazteko modu berri baten oinarriak finkatu dira.

Gainera, garrantzi handiko alderdiak nabarmendu dira; hala nola, erantzukizunaren desbideraketak, hau da, erakunde bat kaudimengabea dela aldarrikatu ondoren, horren zerga-zorrak ordaintzeko betebeharra pertsona fisiko arduradunei (zuzendariak, kontseilariak, etab.) esleitzea. 2016an izandako 114 kasutatik 128 kasutara igaro da 2017an.

Bestelako jarduketak

Horrez gain, Ikuskaritzatik bestelako egiaztapenak ere egin ohi dira, berariaz zerga-kontrolerakotzat jo ezin daitezkeenak, baina Foru Ogasunaren aldeko kuota garrantzitsuak eragin ohi dituztenak. Beste ogasun batzuek egindako eskaeren ondoriozko erregularizazioak izan ohi dira, zergadunen helbide-aldaketengatik nahiz akta bakarretako likidazioengatik. 2017. urtean, 19 jarduketa erregistratu dira 20.984.282 euroko kuotarekin, hots, 2016ko jarduketetan baino 1,6 milioi euro gehiago, % 8,38ko aldaketa portzentualarekin.

Guztira, zerga-kontrolerako jardueraren emaitza –zuzeneko nahiz eragindako emaitzak eta bestelako jarduketak barne harturik– 160,1 milioi eurokoa izan da 2017an, 26,2 milioi euroko gehikuntza absolutuarekin eta % 19,61eko aldaketa portzentualarekin 2016ko jarduketaren aldean.

Datu hauen aurkezpenaz, Nafarroako Gobernuak zorrotasunezko irudia eskaini nahi du iruzur fiskalaren aurkako borrokaren egungo egoeraz, datuen etengabeko jarraipena eta aurreikusitako helburuen araberrako ebaluazioa errazteko asmoz. Hauxe da NZOK 2016-2019ko Iruzuraren aurkako Borroka Planaren adierazi duen nahia.

Iruzuraren aurkako kanpaina

2017ko Zerga Kontrolerako Planaren emaitzak argitara emanik, Nafarroako Gobernuak "Iruzur

fiskala. Zeuk ere ordaintzen duzu” lemapeko kanpaina abiarazi du iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko, gaur ezagutzera eman den datu baten inguruan: foru Ogasunak iaz berreskuratutako 139,1 milioi euroko kopurua.

Kanpainak 40.000 euroko guztizko kostua izanen du, bi asteko iraupenaz, eta markesinetan jarritako kartelak aurreikusiak ditu Iruñean nahiz Iruñerrian, Tuteran eta Lizarrerrian, baita prentsa idatzian txertatutako iragarkiak eta irrati-iragarkiak ere.

Kanpainak helburu bikoitza du: batetik, herritarrei iruzurraren ondorioez kontzientziatu eta gizartearentzat garesti ateratzen dela jakinaraztea, eta bestetik, herritarrak horretan laguntzen duten jarrerez ohartzea.

Luis Esainen esanetan, “gizarte moderno batek erantzukizun fiskaleko portaera irmoak behar ditu, bi alderdi hauetan islatuta. Alde batetik, iruzurra egiten duenarekiko lankidetzeta eta adostasunik eza, eta bestetik, geuk ere ohiko zerga-portaeran zintzo jokatu behar dugula konturatzea”.

Horren harira, Esainek zerbitzu guztien tiketa edo faktura eskatzearen garrantzia nabarmendu du, betebeharrak hori baztertu edota zenbait zerbitzutan BEZik gabeko ordainketa sustatzen diren kasu guztiak salatu behar direla adieraziz.